



2019ko Etxebiden izena emandako pertsonen pertzepzioari buruzko ebaluazio-txostena



Aurkibidea

1. Sarrera	6
2. Etxebideko eskatzaileen zenbatespena	8
2.1. Erregistratutako babes publikoko etxebizitzaren eskaera	8
2.2. Erregistroan etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa jarraitzeari buruz	10
3. Etxebizitza-eskaeraren ezaugarriak	12
3.1. Etxebizitzarekin lotutako egoera	12
3.2. Gaitasun ekonomikoa	14
3.3. Etxebizitza-premiaren arrazoia	16
3.4. Eskatutako etxebizitza-mota	17
3.5. Eskatutako etxebizitzaren ezaugarriak	18
3.6. Etxebizitza eskuratzeko programen eta bestelako formulen aldeko interesa	20
4. Etxebiden izena emandako pertsonen zerbitzuari buruz egindako balioespena	22
4.1. Etxebideren balioespen orokorra	22
4.2. Izena emateko eta berritzeko prozesuaren balioespena	24
4.3. Eskaintako arretaren balioespena	25
4.4. Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren balioespena	27
4.5. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eskatzeko prozesuaren balioespena	28
4.6. Eusko Jaurlaritzaren jardunaren balioespena	29
4.7. Hobetu beharreko alderdiak	30
5. Ondorioak	32



TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

1.1 taula.	Laginaren banaketa lurralde historikoaren, sexuaren eta eskaera-araubidearen arabera. _____	6
3.1 taula.	Egungo etxebizitza-egoera, eskatutako edukitza-araubidearen arabera. _____	13
3.2 taula.	Etxebizitza babestuaren eskatzaileek hilean ordaintzeko duten gaitasuna. _____	14
3.3 taula.	Etxebiden eskatutako etxebizitza edukitzeko araubidea. _____	18
3.4 taula.	Eskatutako etxebizitzaren neurria, eskatutako edukitza-araubidearen arabera. _____	18



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea


2.4 grafikoa.	Etxebiden etxebizitza babestua eskatzen jarraitzen dutenak, lurralde historikoaren eta eskatutako edukitza-araubidearen arabera. _____	11
2.5 grafikoa.	Etxebideren erregistroan izena emanda egoteari utzi dioten herritarren egoera*. _____	11
3.1 grafikoa.	Familiatik emantzipatuta egonik, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen bilakaera, 2005-2019 _____	12
3.2 grafikoa.	Alokairuan bizi diren pertsonen batez beste ordaintzen duten errenta, lurralde historikoaren arabera. _____	13
3.3 grafikoa.	Etxebizitza babestuaren eskatzaileek hilean batez beste ordaintzeko duten gaitasuna. _____	15
3.4 grafikoa.	Etxebizitza babestua erosteko beharrezko finantzaketa eskuratzeko aukera. _	15
3.5 grafikoa:	Etxebizitza-premiaren arrazoi nagusia, lurralde historikoaren arabera. _____	16
3.6 grafikoa.	Independizatzeko edo familia-etxe bat sortzeko premiaren arrazoi nagusiak. _	16
3.7 grafikoa.	Ohiko etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoi nagusiak. _____	17
3.8 grafikoa.	Eskatzaileek zer edukitza-araubidetan nahi duten etxebizitza, lurralde historikoaren arabera. _____	17
3.9 grafikoa.	Etxebiden izena emandako pertsonen eskatutako etxebizitzaren batez besteko neurria. _____	19
3.10 grafikoa.	Udalerriz aldatzeko prestatutasunaren bilakaera, 2013-2019. _____	19
3.11 grafikoa.	Etxebiden izena emandako pertsonen udalerriz aldatzeko duten prestatutasuna.	20
3.12 grafikoa.	Etxebizitza eskuratzeko bestelako formulen aldeko interesa. _____	21
4.1 grafikoa.	Etxebideren batez besteko balioespen orokorraren bilakaera. 2011-2019 ____	22
4.2 grafikoa.	Etxebizitza babestuaren eskatzaileek Etxebideri buruz duten balioespen orokorra. _____	22
4.3 grafikoa.	Etxebidek emandako zerbitzuaren gaineko balioespen orokorra _____	23
4.4 grafikoa.	Izena emateko eta berritzeko prozesuaren batez besteko balioespena. _____	24
4.5 grafikoa.	Izena emateko eta berritzeko prozesuaren balioespena. _____	25
4.6 grafikoa.	Eskaintako arretaren batez besteko balioespena. _____	26
4.7 grafikoa.	Eskaintako arretaren balioespena. _____	26
4.8 grafikoa.	Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren batez besteko balioespena. __	27
9. grafikoa.	Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren balioespena. _____	28
4.10 grafikoa.	Eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuaren batez besteko balioespena. ____	28



- 4.11 grafikoa. Eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuaren balioespena. _____ 29
- 4.12 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko balioespen orokorraren bilakaera, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematearekin lotuta. 2011-2019. _____ 29
- 4.13 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko batez besteko balioespen orokorra, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematearekin lotuta. _____ 30
- 4.14 grafikoa. Etxebiden hobetzeko alderdi nagusiak. _____ 31


1. Sarrera

Etxebide, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua, EAEn babes publikoko etxebizitza eskatzen duten pertsonen erregistroa da, eta, horrenbestez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren politika publikoen xede-kolektibo nagusia biltzen du. Txosten honen helburua da Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkestako emaitzak aurkeztea. Hau da, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren jarduna aztertuko da, xede-kolektiboak zerbitzuari buruz duen iritzia oinarri harturik.



2019ko abenduan zehar, inkesta bat egin zitzairen Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskatzaileei. Guztira, 2.000 pertsona inguruk esku hartu zuten azterlan horretan; hala, \pm 2ko errore-marjina duten emaitza orokorrak eskuratu ziren, % 95,5eko konfiantza-mailarekin.

1.1 taula. Laginaren banaketa lurralde historikoaren, sexuaren eta eskaera-araubidearen arabera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.



Txosten hau bost kapitulutan dago egituratuta, sarrera barnean harturik.

Bigarren kapituluan, Etxebiden izena emandako populazioaren datu nagusiak ematen dira, eta, horri esker, EAEn etxebizitza babestuaren eskaera-bolumena eskura daiteke. Atal horretan bertan, gaur egun etxebizitza-premiarik ez duen populazioaren zenbatespena egiten da –edo baja eman dutenena, ez dituztelako betetzen Etxebidek ezarritako baldintzak–.

Hirugarren kapituluan, etxebizitza babestuaren eskaeraren ezaugarriak zehazten dira, inkestari erantzun dioten pertsonen emandako informazioa oinarri harturik. Deskribatzen da zer egoera duten gaur egun etxebizitzari dagokionez, eta etxebizitza-premiak azaltzeko arrazoieta sakontzen du. Bestalde, hilean ordaintzeko ahalmenari buruz ere jarduten du, bai eta etxebizitza erosteko finantzaketa eskuratzeari buruz ere. Ondoren, deskribatzen da zer ezaugarri dituzten eskatutako etxebizitza horiek (edukitza-araubidea, azalera eta udalerriz aldatzeko aukera). Atal hori amaitzeko, analisi bat egiten da programa batzuek eta besteek pizten duten interesaren gainean, eta aztertzen da zer beste formula ote diren etxebizitza-premia estaltzeko.

Laugarren kapituluan, etxebizitza babestua eskatu duten pertsonen Etxebizitzari buruz egiten duten balioespena aztertzen da. Atalari ekiteko, Etxebideren balioespen orokorra egiten da, eta, ondoren, beste hainbat alderdi jorratzen ditu, hala nola izena emateko eta berritzeko prozesua, eskainitako arreta, etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesua eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko eskatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko balioespena ere biltzen du, eta, amaitzeko, etxebizitza babestuaren eskatzaileek zerbitzua hobetzeko egiten dituzten proposamenak jasotzen dira.

Azkenik, bosgarren kapituluan, Etxebideko erregistroan izena emandako herritarren pertzepzioari buruzko txostenetik ateratako ondorio nagusiak laburbiltzen dira.


2. Etxebideko eskatzaileen zenbatespena

2.1. Erregistratutako babes publikoko etxebizitzaren eskaera

2019an, berriz ere gora egin du Etxebiden erregistratutako babes publikoko etxebizitzaren eskaerak

Etxebideren datuen arabera, 2019. urtean, etxebizitza babestuaren eskaria 70.179 eskaera-espeditentekoa izan da. Gauzak horrela, etxebizitza publikoaren eskariak hazkunde berri bat jasan du, % 8 igo baita 2018 eta 2019 artean.

2.1 Grafikoa Alokairuko etxebizitza babestuen eskariak eta etxebizitza babestuen guztizko eskariaren bilakaera, Etxebideko erregistroaren arabera. 2005-2019




2012. urtera arte bi jabetza-erregimenak aukera zitezkeen.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

2019an, alokairuko etxebizitzaren eskaria nagusi izan da, hala ere, hazkuntza handiago bat nabari da erosketa-eskarian

2019an, alokairuko etxebizitza publikoaren eskaria 55.468 espeditentekoa da, aldiz, erosketari dagozkionak 14.711 dira. Babestutako alokairu-etxebizitzak eskuratzeko eskaerak guztizkoaren %79 barne hartzen dute eta %6 handitzen da azken urtean. Eskaeren %21 erosketako etxebizitza babestuen eskariari dagokie, zeinak %15 egin duen gora 2018 eta 2019 artean.

2.2 Grafikoa Babestutako etxebizitza-eskaeraren bilakaera, Etxebideko jabetza-erregimenaren arabera. 2014-2019



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

Lurraldeka aztertuz gero, etxebizitza babestua eskuratzeko bi eskaeratik bat Bizkaian erregistratu da, guztizko eskariaren %54 xurgatuz, 37.629 eskaera-espeditentekin. Gipuzkoan 23.121 espediente jasotzen dira eta Araban 9.429 eskaera.

Alokairuko etxebizitza publikoaren eskariak pisu handiagoa du Araban eta Bizkaian Gipuzkoarekin alderatuta.

2.1 Taula Etxebiden izena emandako biztanleriak eskatutako sarbide-erregimena, Lurralde Historikoaren arabera. 2019


	Erosketa		Alokairua		Guztira
	Kopurua	% horizontala	Kopurua	% horizontala	
Araba	704	7,5%	8.725	92,5%	9.429
Bizkaia	7.593	20,2%	30.036	79,8%	37.629
Gipuzkoa	6.414	27,7%	16.707	72,3%	23.121
EAE, guztira	14.711	21,0%	55.468	79,0%	70.179

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Babestutako etxebizitza eskatzeko jasotako espediente guztietatik, 29.826 emakumezkoenak bakarrik dira; 24.967 gizonetzkoenak bakarrik; eta gainerako 15.386 espedienteen titularrak emakumeak eta gizonak dira.

Emakumeek titular gisa duten pisua handiagoa da alokairu-eskariaren kasuan. Gizonek emakumeek baino presentzia handiagoa dute salmentako etxebizitza publikoaren eskaeran.

2.3 Grafikoa Emakumeen eta gizonen etxebizitza babestuaren eskaria Etxebiden. 2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Diru-sarreraren mailari dagokionez, Gipuzkoan etxebizitza babestua eskatzen duten biztanleek dituzte diru-sarrera handienak (19.122 euro haztatu, batez beste), Arabaren (17.921 euro) eta Bizkaiaren (17.283 euro) aurretik.

Alokairu-eskaerak burutzen dituztenen diru-sarrera maila erosketena baino askoz txikiagoa da hiru lurraldeetan: batez besteko diru-sarrera haztatuak 12.387 euro Araban, 11.709 euro Bizkaian eta 13.687 euro Gipuzkoan.


2.2. Erregistroan etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa jarraitzeari buruz

Eskatzaileen % 6k aitortzen du ez duela jarraitzen etxebizitza babestuaren eskaerarekin Etxebiden

Etxebiden erregistratutako herritarren artean, galdetu da jarraitzen ote duten erregistroan etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa. 2019an egindako inkestatik, ondorioztatzen da eskatzaileen % 6 ez dagoela erregistroan hainbat arrazoi direla eta, ondoren azaltzen dugun moduan.




2.4 grafikoa. Etxebiden etxebizitza babestua eskatzen jarraitzen dutenak, lurralde historikoaren eta eskatutako edukitza-araubidearen arabera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebiden erregistratuta egoteari utzi dioten herritarrekin jarraituz, bitatik batek adierazten du ez duela eskaerarekin jarraitzen, nahiz eta ez duten estali premia. Aipatzen dituzten arrazoiaren artean, honako hauek ageri dira: eskakizun ekonomikoak ez betetzea, gaur egun senideren batekin edo lagatako etxebizitzaren batean bizitzea, edo etxebizitza bat edo gela bat alokatzea merkatu askean. Hori horrela, % 28k dio etxebizitza libre bat eskuratu duela, % 14k etxebizitza babestu bat erosi duela eta % 11k, berriz, etxebizitza babestu batean bizi dela alokairuan.

2.5 grafikoa. Etxebideren erregistroan izena emanda egoteari utzi dioten herritarren egoera*.



* Etxebideren erregistroan izena emanda jarraitzen ez dutela dioten pertsonen ehuneko zenbatetsia.

Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


3. Etxebizitza-eskaeraren ezaugarriak

3.1. Etxebizitzarekin lotutako egoera

Etxebiden izena emandako lau pertsonatik hiruk familia-etxe independentea osatzen dute

Etxebizitza baten beharrea eta Etxebiden izena emanda segitzen duten herritarrekin jarraituz, inkestari esker zenbatetsi daiteke etxebizitza publikoa eskatzen duten pertsonen % 26 oraindik ere emantzipatu gabe dagoela eta oraindik ere familiaren etxean jarraitzen duela. Aldiz, % 74k familia-etxe independentea osatu du. Bilakaerari erreparatzen baldin badiogu, nabarmenduko dugu beste behin ere areagotu egin dela emantzipatutako pertsonen eskaria.

3.1 grafikoa. Familiatik emantzipatuta egonik, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen bilakaera, 2005-2019



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebizitza publikoaren eskatzaileen emantzipazio-maila apur bat handiagoa da Araban (% 80), Bizkaiarekin (% 74,5) eta Gipuzkoarekin (% 72) alderatuta.

Nahiko luketen edukitza-araubideari erreparatzen baldin badiogu, emantzipazio-maila askoz ere handiagoa da etxebizitza babestua alokairuan eskatzen dutenen artean (% 80), erosteko eskatzen dutenen artean baino (% 59).

Emantzipaturik egonik etxebizitza babestua eskatzen duten emakumeen proportzioa (% 57) apur bat txikixeagoa da Etxebiden izena emandako gizonena baino (% 64 emantzipaturik daude).

Etxebiden etxebizitza babestua eskatzen duten hamar pertsonatik sei alokairuan bizi dira, eta, batez beste, 654 euro ordaintzen dituzte etxebizitzaren truke

Oro har, adierazi behar da etxebizitza babestuaren eskaera orokorraren % 64 alokairuan dela (% 50ek pisu bat alokatu du, eta % 14k adierazten du gela bat daukala alokatuta). Halaber, identifikatu da hainbat herritar lagatako etxebizitza batean bizi direla, edo eskatutako irisgarritasun-eta neurri-baldintzak betetzen ez dituen jabetzako etxe batean.


3.1 taula. Egungo etxebizitza-egoera, eskatutako edukitza-araubidearen arabera.

	Alokairuan eskatuta	Erosteke eskatuta	Guztira
Gurasoen etxean bizi naiz	% 20,3	% 40,8	% 25,8
Alokatutako etxe batean bizi naiz	% 70,6	% 45,7	% 64,0
<ul style="list-style-type: none"> • Alokatutako etxe libre batean bizi naiz • Gela bat alokatu dut 	% 54,3	% 38,9	% 50,2
Lagatako etxe batean bizi naiz	% 3,6	% 6,7	% 4,5
Jabetza	% 0,2	% 3,0	% 1,0
Beste egoeraren bat	% 5,3	% 3,8	% 4,8
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebiden izena emanda dauden eta alokatutako etxebizitza batean bizi diren pertsonak baieztatzen dute batez beste 654 euro ordaintzen dituztela alokairuaren truke. Gela bat alokatzeko, berriz, batez beste 311 euro ordaintzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, Etxebiden izena emanda dauden herritarrek berek emandako informazioaren arabera. Batez besteko alokairuak garestixeagoak dira Gipuzkoan.

3.2 grafikoa. Alokairuan bizi diren pertsonek batez beste ordaintzen duten errenta, lurralde historikoaren arabera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

3.2. Gaitasun ekonomikoa

Gaitasun ekonomiko mugatua etxebizitza-gastuei aurre egiteko

Etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen gaitasun ekonomikoari dagokionez, zenbatesten da batez beste 357 euro ordaintzeko gauza direla.

Hileko ordaintzeko gaitasuna handiagoa da etxebizitza erosteko eskatzen dutenen artean (460 euro), etxebizitza babestua alokairu-araubidean eskatzen dutenen artean baino (315 euro), erosteko eskatzen dutenek diru-sarrera handiagoak dituzten aldetik.

3.2 taula. Etxebizitza babestuaren eskatzaileek hilean ordaintzeko duten gaitasuna.

	Alokairuan eskatuta	Erosteke eskatuta	Guztira
180 eurora arte	% 11,0	% 1,4	% 8,2
181 eta 300 euro bitarte	% 45,3	% 12,4	% 35,8
301 eta 450 euro bitarte	% 30,9	% 37,5	% 32,8
451 eta 600 euro bitarte	% 11,4	% 32,7	% 17,5
600 euro baino gehiago	% 1,5	% 16,1	% 5,7
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0
Hilean batez beste ordaintzeko gaitasuna (eurotan)	315,2	459,6	356,8


Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebizitza babestu bat ordaintzeko gaitasuna esparru geografikoen arabera aztertzen badugu, nabarmendu behar da Gipuzkoan inkestari erantzun dioten pertsonak batez beste 377 euro ordaintzeko gaitasuna zutela, zenbateko handiagoa Bizkaian eta Araban aitortutakoa baino (348 euro eta 330 euro, hurrenez hurren).

Etxebizitza babestua eskatzen duten emakumeen kasuan, adierazten dute batez beste 350 euro ordaintzeko gauza direla. Etxebiden etxebizitza publikoa eskatzen duten gizonzkoek, oster, batez beste 368 euro ordain ditzaketela diote.



3.3 grafikoa. Etxebizitza babestuaren eskatzaileek hilean batez beste ordaintzeko duten gaitasuna.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebizitza babestu bat eskatzen duten pertsoneri galdetu zaie beren ustean eskuratu ahal izango ote luketen, gaur egun, beharrezko finantzaketa etxebizitza babestua eskuratu ahal izateko.

Inkestari erantzun dioten % 61 baiezkotan dago, finantza-erakundeek emango lieketela kreditu bat etxebizitza erosteko, segurtasun osoz. Bestalde, % 33k ere baietz uste du, baina hainbat zalantza ditu finantzaketa eskuratzeko aukerari dagokionez. Azkenik, % 6,5ek dio, nahiz eta etxebizitza babestua eskatu, ez lukeela jasoko finantzaketarik etxebizitza babestua erosteko.

3.4 grafikoa. Etxebizitza babestua erosteko beharrezko finantzaketa eskuratzeko aukera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


3.3. Etxebizitza-premiaren arrazoia

Etxebiden izena emateko arrazoi nagusia da etxebizitza bat eskuratzea familia-etxe bat sortzeko

Etxebizitzaren premia azaltzeko arrazoiari dagokionez, berriz, bereizi behar dira, batetik, ohiko etxebizitza aldatzeko premia duten biztanleak eta, bestetik, etxebizitza bat eskuratzeko premia dutenak.

Inkesta horretatik, ondorioztatzen da % 60k etxebizitza bat eskuratzeko premia duela, dela familia-etxetik independizatzeko, dela gaur egun bizi den etxebizitzatik kanpora familia-etxe independente bat osatzeko. Pertsona askok adierazten du alokairuan bizi direla, pisu partekatuetan, eta orain familia-etxe berri bat sortu nahian dabiltzala, bakarrik zein bikotekidearekin. Aldiz, % 40k adierazten duenez, familiak ohiko etxebizitza aldatzea nahi du. Eraitza hori oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan.


3.5 grafikoa: Etxebizitza-premiaren arrazoi nagusia, lurralde historikoaren arabera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebizitza berri bat eskuratzeko premian sakonduz, nabarmentzen da Etxebiden izena emandako herritarrek beren kontura bizitzeko nahia dutela, bikotekidearekin bizitzekoa edo ezkontzea, edo etxebizitza bat eskuratu nahi dutela dibortziatu edo banandu ondoren.

3.6 grafikoa. Independizatzeko edo familia-etxe bat sortzeko premiaren arrazoi nagusiak.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.



Aldatzeko premiari dagokionez, adierazitako arrazoi nagusia alokairu merkea eskuratzea da. Hori bai, beste hainbat arrazoi ere identifikatzen dira etxebizitza aldatzeko, hala nola etxebizitza bat jabetzan eskuratu nahia, egungo bizitokiko bizigarritasun-baldintza kaskarrak edo igogailua duen etxebizitza baten premia.

3.7 grafikoa. Ohiko etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoi nagusiak.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

3.4. Eskatutako etxebizitza-mota

Alokairua da edukitza-araubide eskatuena, baina ikusten da behar den etxebizitza-mota aldatu egiten dela

Etxebiden izena emandako pertsonen artean, kontsultatu da zer etxebizitza babestu mota aukeratuko ote luketen gaur egun, alokairuan edo erosteko moduan eskainiz gero. Inkestak dionez, % 71 alokairuaren aldekoak dira, eta % 29, berriz, erostearen aldekoak. Alokairu-araubideko etxebizitza babestuen eskaera askoz handiagoa da Araban (% 88).

3.8 grafikoa. Eskatzaileek zer edukitza-araubidetan nahi duten etxebizitza, lurralde historikoaren arabera.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Pertsonak izena eman duen edukitza-araubidearen eta gaur egun nahiko lukeen araubidearen arteko aldeari erreparatuta, ikusiko dugu premia-egoerak aldatu egiten direla eta alokairu-eskatzaile gisa erregistratuta dauden pertsonen % 8k gaur egun etxebizitza bat erosteko eskatuko lukeela; erosteko eskariaren kasuan, berriz, gaur egun % 9k eskatuko luke etxebizitza bat alokairuan.

3.3 taula. Etxebiden eskatutako etxebizitza edukitzeko araubidea.

Egungo eskaera	Etxebiden erregistratutako eskaera		
	Alokairuan	Erosita	Guztira
Erosteko eskatuta	% 8,1	% 90,6	% 28,6
Alokairuan eskatuta	% 91,9	% 9,4	% 71,4
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

3.5. Eskatutako etxebizitzaren ezaugarriak

Neurri ertaineko etxebizitzak eskatzen dira

Etxebizitza babestuen neurriari dagokionez, inkestaren bidez egiazta daiteke Etxebideko eskatzaileek neurri ertaineko etxebizitzak nahi dituztela; hau da, batez beste 70 m²-koak. Halaber, 61 eta 75 m² arteko etxebizitzak dira etxebizitza babestu bat alokairuan nahi duten pertsonen artean; halere, hurrengo tartea, 76 eta 90 m² artekoa, eskatzen dute etxebizitza babestua erosi nahi duten % 44k.


3.4 taula. Eskatutako etxebizitzaren neurria, eskatutako edukitza-araubidearen arabera.

	Alokairuan eskatuta	Erosteko eskatuta	Guztira
40 m ² arte	% 7,7	% 1,0	% 5,7
41 eta 60 m ² artean	% 31,6	% 10,9	% 25,5
61 eta 75 m ² artean	% 31,9	% 30,1	% 31,4
76 eta 90 m ² artean	% 20,8	% 43,9	% 27,6
91 eta 120 m ² artean	% 6,3	% 13,7	% 8,5
120 m ² baino gehiago	% 1,6	% 0,4	% 1,3
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0
Batez besteko neurria (m²)	67,1 m²	78,2 m²	70,4 m²

Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Arabian eskatutako etxebizitzaren batez besteko neurria handiagoa da beste bi lurraldeetan baino. Etxebizitza babestua erosteko eskatzen dutenek adierazten dute batez beste 78 m²-ko etxebizitza behar dutela, eta etxebizitza babestua alokairuan eskatzen dutenek, berriz, 67 m²-koa.

3.9 grafikoa. Etxebiden izena emandako pertsonen eskatutako etxebizitzaren batez besteko neurria.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkesta.

Areagotzen jarraitzen du udalerriz aldatzeko prestutasunak etxebizitza babestu bat eskuratzeko, eta aldeek beren horretan jarraitzen dute lurralde historikoen arabera

Etxebiden izena emandako pertsonen % 66k adierazten du prest legokeela udalerriz aldatzeko, horrekin behar duen etxebizitza eskuratzeko balu. Aldiz, % 34k dio ez litzatekeela udalerriz aldatuko.

3.10 grafikoa. Udalerriz aldatzeko prestatutasunaren bilakaera, 2013-2019.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkesta.

Aurrez egindako azterketetan detektatzen zen moduan, beste udalerrri batzuetan bizitzeko prestutasuna asko aldatzen da esparru geografikoen arabera. Bizkaiko eskatzaileen % 71,5 eta Gipuzkoakoen % 66 prest leudeke beste udalerrri batera joateko. Araban, berriz, % 33 baino ez daude prest egun bizi diren udalerritik mugitzeko.

Etxebizitza babestua eskatzen duten gizonezkoek prestutasun handiagoa ageri dute udalerriz aldatzeko, etxebizitza babestu publikoa eskatzen duten emakumeek baino.

3.11 grafikoa. Etxebiden izena emandako pertsonen udalerriz aldatzeko duten prestutasuna.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

3.6. Etxebizitza eskuratzeko programen eta bestelako formulen aldeko interesa

Eroste aukera eskaintzen duen alokairua da interes handiena pizten duen aukera. Gainerakoen kasuan, ezagutza-falta handia ageri da.

Etxebiden etxebizitza babestua eskatzen duten herritarrekin, beste hainbat formula aztertzen dira etxebizitza eskuratzeko, alokairuan edo eroste eskatutako babes publikoko etxebizitza-premia estaltzeko.


Eroste aukera eskaintzen duen alokairuak pizten du interesik handiena Etxebideko babes publikoko etxebizitza-eskaeran. Zehazki, inkestari erantzun dioten % 79k adierazi du interesaturik dagoela modalitate horretan, eta % 15ek, berriz, adierazi du ez duela aukera hori aurreikusten.



Bi pertsonatik batek uste du interesgarria dela Bizigune programa, baina proportzio hori % 32ra murrizten da ASAP programari dagokionez, betiere Etxebiden izena emandako pertsoneri dagokienez. Programa horiei dagokienez, deigarria da zer-nolako ezagutza-falta ageri den haien gainean: % 43koa da Bizigunereren kasuan, eta % 63koa ASAP programarekin lotuta.

Alokairu-kooperatiben aldeko interesa ageri du etxebizitza babestua eskatzen duten hiru pertsonatik batek (% 33). Zuzkidura-bizitokiak aukera gisa ikusten dituztenak, berriz, gutxiago dira: % 18. Babestutako etxebizitza bat beste eskatzaile batzuekin partekatzea, azkenik, % 7k bakarrik aurreikusten du. Aukera horien gaineko ezagutza-falta oso handia da, honako grafiko honetan ageri den moduan.

3.12 grafikoa. Etxebizitza eskuratzeko bestelako formulen aldeko interesa.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


4. Etxebiden izena emandako pertsonen zerbitzuari buruz egindako balioespena

4.1. Etxebideren balioespen orokorra

Oro har, Etxebideren zerbitzuak balioespen positiboa izaten jarraitzen du

Etxebizitza babestua eskatzen duten herritarrek, oro har, iritzi positiboa izaten jarraitzen dute Etxebiderekin. 2019an Etxebide zerbitzuan izena emandako herritarrek duten asebetetze-maila 5,5 puntu dira batez beste; hau da, aurreko aldietan emandako batez besteko notaren tankerakoa (5,7 izan zen 2011 eta 2019 bitartean).


4.1 grafikoa. Etxebideren batez besteko balioespen orokorraren bilakaera. 2011-2019



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Zerbitzuaren balioespen orokorra antzekoa da hiru lurralde historikoetan, baita alokairu- eta erosketa-eskariaren artean ere. Era berean, ez dago alde mamitsurik emakumeen eta gizonen iritzien artean, zerbitzuaren jarduerari buruzko iritzian.

4.2 grafikoa. Etxebizitza babestuaren eskatzaileek Etxebideri buruz duten balioespen orokorra.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.




Eskainitako arretak eta eskubide subjektiboa aitortzeak dute balioespen handiena Etxebiden

Etxebideren zerbitzua balioesten sakontzeko, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonak lau gako-alderdiren gainean duten iritzia ere biltzen da: izena emateko eta berritzeko prozesua, eskainitako arreta, etxebizitza bat esleitzeko prozesua eta eskubide subjektiboa aitortzeko prozesua.

Batez besteko puntuazioak harturik, ondorioztatzen da hauek direla ondoen balioetsitako alderdiak: langileek eskainitako arreta eta eskubide subjektiboa aitortzeko prozesua, batez beste hamar puntutik seirekin. Izena emateko eta berritzeko prozesuak, berriz, 5,8 puntu eskuratu ditu. Etxebizitza bat esleitzeko prozesuak puntuazio txikiagoa eskuratu du batez beste: 4,6 puntu 10etik. Hurrengo atalean, alderdi horietako bakoitzari buruzko xehetasun gehiago ematen da.

4.3 grafikoa. Etxebidek emandako zerbitzuaren gaineko balioespen orokorra



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


4.2. Izena emateko eta berritzeko prozesuaren balioespena

Etxebideren izena emateko eta berritzeko prozesuak balioespen positiboa du

Etxebiden izena emateko prozesutik hasita, zerbitzuan izena emandako pertsonak gogobetetze-maila onak ageri dituzte prozesu horri dagokionez, eta, batez beste, 5,8 puntu ematen dizkiote 10etik. Izena emateko prozesua bera da, eskatutako dokumentazioarekin batera, ondoen balioetsitako alderdia. Etxebizitza babestua eskatzen duten bi pertsonatik batek aitortzen du berritzeko prozesua ona dela.

Aldiz, babes publikoko etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonak iritzi negatiboagoa dute, etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzei edo motei buruzko informazioari dagokionez. Zehazki, azterketan parte hartzen duten hiru pertsonatik batek uste du eskainitako informazioa ez dela ona izena emateko garaian.

4.4 grafikoa. Izena emateko eta berritzeko prozesuaren batez besteko balioespena.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Izena emateko prozesuan eskainitako informazioa da hobetu beharreko alderdia

Elkarrizketari erantzun dioten bi pertsonatik batek adierazten duenez, izena emateko, izen-ematea berritzeko eta dokumentazioa eskatzeko prozesuak onak edo oso onak dira. Iritzi horiek heterogeneoagoak dira eskura diren babes publikoko etxebizitza motak eskuratzeko baldintzei buruzko informazioa balioesteko garaian: heren batek adierazten du informazio hori ona dela, beste informazio batek erdipurdikoa dela eta beste herenak, berriz, txarra dela.

4.5 grafikoa. Izena emateko eta berritzeko prozesuaren balioespena.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkesta.

4.3. Eskaintako arretaren balioespena


Balioespen positiboa egiten jarraitzen da jasotako arretaren gainean

Etxebiden izena emandako pertsonak baieztatzen dutenez, eskaintako arreta ona izan da, eta batez beste 6 puntu ematen dituzte 10etik. Etxebideko langileek aurrez aurre eskaintako arretak jaso du balioespenik onena: 6,8 puntu batez beste. Atzetik du telefono bidezko arreta, 6,5 punturekin. Etxebideren webgunean jasotako informazioak ere balioespen positiboa du: 5,9 puntu 10etik batez beste.

Jasotako komunikazioek eta Ordezkaritzan egindako eskaeren ebazpenek, ostera, balioespen apalagoak izan dituzte (batez beste 5,5 puntu eta 5,3 puntu hurrenez hurren).



4.6 grafikoa. Eskaintako arretaren batez besteko balioespena.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Ordezkaritzan egindako eskaeren ebazpenak jasotzen ditu gogobetetze-maila apur bat apalagoak

Pertzepzio orokorra da arreta ona edo oso ona jasotzen dela planteatutako bost auzien gainean. Elkarriketari erantzun dioten pertsonen % 67,5ek oso modu positiboan balioetsi du aurrez aurreko arreta, eta % 61ek, berriz, telefono bidezkoa. Bestalde, bi pertsonatik batek uste du ona edo oso ona dela Etxebideren webgunean emandako informazioa, baita jasotako komunikazioak ere. Nolanahi ere, nabarmendu behar da % 26ren ustez ez dela egokia Ordezkaritzan egindako eskaeren ebazpena. Era berean, % 25ek adierazten du jasotako komunikazioak ez direla nahikoa.

4.7 grafikoa. Eskaintako arretaren balioespena



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


4.4. Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren balioespena

Etleitzeko prozesua hobetu beharra dago

Babestutako etxebizitzak esleitzeko prozesua, aurrez adierazi dugun moduan, gogobetetze-mailarik apalenetakoa duen alderdietako bat da: 4,6 puntu batez beste 10etik.

Etxebiden erregistratutako herritarrek diotenez, balioespen ona egiten dute esleipen-prozesuak jakinarazteko prozedurari buruz (posta bidezkoa), eta 5,6 puntu ematen dizkiote batez beste. Esleipen-prozesuari buruzko gainerako alderdiek, ordea, puntuazio apalagoak dituzte batez beste, eta etxebizitza esleituen kontrolak eragiten du gogobetetze-mailarik apalena.

4.8 grafikoa. Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren batez besteko balioespena



Iturria: Etxebidieren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


Hobetu beharreko alderdien artean ageri dira esleipen-prozesua, gardentasuna eta esleitutako etxebizitzaren kontrola

Elkarrizketatutako pertsonen % 48k balioespen ona edo oso ona eman diote posta bidezko jakinarazpenari, eta % 22,5ek txartzat jotzen du.

Sustapen jakin baterako izena emateari dagokionez, etxebizitza babestuaren eskatzaileek askotariko iritziak dituzte: % 35ek oso ontzat du alderdi hori, % 33k dio erdipurdikoa dela eta % 33k, azkenik, txarra edo oso txarra dela.

Ikuspegi negatiboa handiagoa da positiboa baino honako kasu hauetan: etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuan, esleitzeko prozesuaren gardentasunean, eta esleitutako etxebizitzaren kontrolan, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:

9. grafikoa. Etxebizitza babestu bat esleitzeko prozesuaren balioespena.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.


4.5. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eskatzeko prozesuaren balioespena

Puntuazio ona eskuratzen du etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuak

Inkestan parte hartu izanik etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea eskatu dutenei eskatu zaie balioets dezatela eskaera-prozesua.

Eskubide subjektiboa aitortzea eskatu duten herritarrek batez beste 6 puntu ematen dizkiote 10etik eskubide subjektiboa aitortzeko prozesu orokorrari; puntuazio hori 6,2 puntukoa da eskatutako dokumentazioa eta alderdi administratiboak balioesteko garaian, eta 5,7 puntukoa eskaeraren prozesuan bertan.


4.10 grafikoa. Eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuaren batez besteko balioespena.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuaren gainen planteatutako hiru auzietan, gehienek balioespen ona edo oso ona egin dute.

4.11 grafikoa. Eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuaren balioespena.




Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

4.6. Eusko Jaurlaritzaren jardunaren balioespena

Eusko Jaurlaritzari emandako batez besteko balioespenak maila bertsuan jarraitzen du

Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaileen artean 2019an egindako inkestaren arabera, pertsona horiek Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikekin duten gogobetetze-maila 4,7 puntukoa da batez beste. Hain zuzen ere, aurreko urtekoaren antzeko emaitza.


4.12 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko balioespen orokorraren bilakaera, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematearekin lotuta. 2011-2019.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta.

Etxebiden izena emanda dauden pertsonen Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruz batez beste duten gogobetetze-maila oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan, eta maila bertsua du alokairuan edo erosteko eskatzen dutenen artean ere. Batez besteko puntuazio zenbatetsia, berriz, apur bat handiagoa da babes publikoko etxebizitza eskatzen duten gizonen artean (4,9 puntu), emakumeen artean baino (4,6 puntu).

4.13 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko batez besteko balioespen orokorra, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematearekin lotuta.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkesta.

4.7. Hobetu beharreko alderdiak

Inkestak, era berean, Etxebiden hobetu beharreko alderdiei buruzko iritziak ere jaso ditu. Bildutako emaitzaren bolumena oso ugaria izan da, eta asko dira hobetzeko egin dituzten gomendioak. Hona hemen esanguratsuenak.

Esleipen-prozedura da gehien aipatzen den alderdietako bat. Askotariko iritziak daude, eta aipatzen diren irizpideen artean ageri dira esleipen-irizpideak eta entrega-epeak. Segimendu handiagoa edo kasuistika partikularrari arreta handiagoa eskaintzera bideratutako proposamenak jasotzen dira: «*Egoera pertsonaletan sakontzea, gerta bailiteke aldagai garrantzitsuak izatea; egoera ekonomikoak eta premiak aztertzea; familia-egoeren larritasun-maila balioestea...*». Horiek dira gehien errepikatzen diren irizietako hainbat, esleipen-prozedurari dagokionez.


Informazioa eta komunikazioa ere hobetu beharreko alderdia da. Hainbat alderdi nabarmendu litezke, hala nola eskaintako edukien argitasuna hobetzea eta eskaintzen den etxebizitza-motari buruzko informazio gehiago ematea, programei buruzko informazioa eta haiek eskuratzeko bideak. Era berean, planteatzen da interesgarria litzatekeela Etxebideren eta etxebizitza babestuen eskatzaileen arteko komunikazioa arinagoa izatea. Web orria hobetzea, intuitiboagoa eta nabigatzen errazagoa izan dadin. Halako proposamenak ageri dira. Era berean, eskatzen da web bidezko interakzioa handiagoa izatea.

Etxebizitza-eskaintza areagotzea da Etxebiden izena emanda dauden pertsonen aipatutako beste gaietako bat. Pertsona askok eta askoz adierazten dute berriaz beharrezkoa dela etxebizitza babestuen parkea hobetzea, etxebizitza-premiari erantzuteko. Alde horretatik, alokairu sozialari begiratzen zaio, eta, era berean, planteatzen da alokairuaren prezioak arautzeko aukera.

Era berean, etxebizitza-politika publikoaren hartzailak nor izan behar diren gogoeta egiteko iritziak ere biltzen dira, alegia, egokia ote litzatekeen zailtasun bereziak dituzten populazio-taldeak lehenestea. Artatu beharreko kolektibo horien artean aipatzen dira familia-etxetik lehendabizikoz independizatu behar duten gazteak, desgaitasuna duten pertsonak, gizartetik baztertzeko arriskua dutenak, adingabeak dituzten familiak...

Etxebiden izena emandako pertsonen beste gai garrantzitsu batzuk ere aipatzen dituzte; esaterako, itxaroteko denbora hobetu beharra, erantzuteko bizkortasuna, esleitutako etxebizitzaren kontrola eta prozesuen gardentasuna.

4.14 grafikoa. Etxebiden hobetzeko alderdi nagusiak.



Iturria: Etxebideren erregistroan izena emandako etxebizitza babestuen eskatzaileei egindako inkesta.



5. Ondorioak

Areagotu egin da babes publikoko etxebizitzaren eskaria

2018an, berriro ere areagotu egin da Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuen eskaera. Alokairuko etxebizitzak eskatzen dira orain ere gehien, nahiz eta 2017an eta 2018an neurri handiagoan areagotu den etxebizitza babestuak erosteko eskaera.

Lurralde historikoen arabera, alokairu-eskaerak gehiago dira Araban eta Bizkaian, Gipuzkoan baino. Eskatzaileen profilarik dagokionez, nabarmendu behar da emakumeek etxebizitza babestu gehiago eskatzen dutela gizonek baino; izan ere, azken horiek erosteko eskaera gehiago egiten dituzte.

2019ko inkestaren arabera, etxebizitza eskatu duen populazioaren % 6k baja eman du erregistrotik hainbat arrazoi direla eta, hala nola gaur egun ez dituztelako betetzen etxebizitza babestua eskatzeko baldintzak, konpondu dutelako zuten premia etxebizitza bat erosita edo alokatuta (dela merkatu librean, dela babestuan).

Etxebiden izena emandako pertsonarik gehienek dagoeneko badute familia-etxe independente bat, merkatu librean alokatuta bizi dira

Etxebiden izena emandako lau pertsonatik hiruk familia-etxe independentea osatzen dute (% 74k), eta % 26k oraindik ere emantzipatu gabe jarraitzen du.

Etxebizitza babestua eskatzen duten hamar pertsonatik sei alokairuko etxe batean bizi dira. Zehazki, eskariaren % 50 alokairuko etxebizitza batean bizi da, eta % 14k adierazten du gela bat alokatu duela. Ordaindu beharreko errentari dagokionez, etxebizitza osorik alokatzen dutenek 654 euro ordaintzen dituzte batez beste. Izena emandako gainerako pertsonak, ostera, familiarekin edo lagatako etxe batean bizi dira.

Etxebizitza babestu bat eskatzeko arrazoi nagusien artean, norbere kontura edo bikotekidearekin bizi nahia ageri dira

Etxebiden izena emandako pertsonen artean etxebizitza-premiaren arrazoiei buruz galdetzean, hamar pertsonatik seik adierazten du independizatu egin nahi dutela edo familia-etxe berri bat osatu nahi dutela bikotekidearekin. Ohiko etxebizitza aldatu nahi duten pertsonen artean, alokairu merke bat topatzea da azalpen-argudio nagusia. Baina badira beste hainbat ere, etxebizitza bat jabetzan eskuratu nahi dutenak edo bizigarritasun- eta irisgarritasuna-baldintzak hobetu nahi dituztenak.

Alokairua da edukitza-araubide eskatuena, eta ikusten da aldatu egiten dela behar den etxebizitza-mota

Inkestari erantzun dioten pertsonen % 71ek dioenez, gaur egun alokairuko etxebizitza bat behar dute, eta % 29k dio erosi egingo lukeela. Inkestaren bidez egiaztatu ahal izan da etxebizitza-premia aldatu egiten dela. Hala, etxebizitza babestua alokairu-araubidean eskatu dutenen % 8k aitortzen du gaur egun erosi egin nahi duela; aldi berean, erosteko eskaria egin zutenen % 9k dio gaur egun nahiago lukeela alokatu.

Etxebizitza-gastuei aurre egiteko hileko ordainketa-gaitasuna 315 eurokoa da alokairuan eskatzen dutenen artean, eta 460 eurokoa erosteko eskatzen dutenen kasuan. Ordainketa-gaitasun hori apur bat handiagoa da gizonen kasuan (368 euro) emakumeen kasuan baino (351 euro).

Etxebiden izena emandako pertsonen artean, areagotu egin da udalerriz aldatzeko prest leudekeen pertsonen kopurua, eta nabarmentzekoak dira Gipuzkoan eta Bizkaian jasotako baiezkoren kopurua.

Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuak eta Bizigune etxebizitza-programak jaso dute balioespen positiboa

Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuak pizten du interesik handiena etxebizitza-eskatzailleen artean. Zehazki, populazio horren % 79k dio oso interesgarria dela modalitate hori. Bizigune programari dagokionez, Etxebiden izena emandako pertsonen % 50ek uste du interesgarria dela; aldiz, ASAP programaren kasuan portzentaje hori % 32ra jaisten da.

Nabarmendu behar da, halaber, ezagutza-falta handia dutela izena emandako pertsonen planteatutako etxebizitza-programen eta -aukeren inguruan (hala nola zuzkidura-bizitokiak, ASAP programa edo alokairu-kooperatibak).

Etxebidek balioespen positiboa du, eta esleitzeko prozesua dago hobetu beharra

Oro har, etxebizitza babestua eskatzen duten herritarrek iritzi positiboa dute Etxebidek eskainitako zerbitzuari buruz, eta 5,5 puntu ematen dizkiote batez beste. Izena emateko eta berritzeko prozesuak, eskainitako arretak eta eskubide subjektiboa aitortzeko prozesuak balioespen positiboak jaso dituzte batez beste. Iritzi txarrenak, berriz, etxebizitza esleitzeko prozesuak jaso ditu.

Ez dago alde esanguratsurik esparru geografiko batzuetan eta besteetan jasotako iritzien artean, ezta eskatutako edukitza-araubidearen arabera edo Etxebideko babes publikoko etxebizitzak gizonen ala emakumeen eskatu kontuan hartuta ere.

Etxebideren izena emateko eta berritzeko prozesuak balioespen positiboa du



Elkarrizketari erantzun dioten bi pertsonatetik batek adierazten duenez, onak edo oso onak dira izena emateko, izen-ematea berritzeko eta dokumentazioa eskatzeko prozesuak. Iritzi horiek apur bat heterogeneoagoak dira eskuratzeko baldintzen gainean eskainitako informazioari dagokionez: hiru pertsonatik batek dio ona dela, txartzat duen populazio-proportzio berak, alegia.

Eskaeren ebazpenak eta jasotako komunikazioek jasotzen dituzte gogobetetze-maila apur bat apalagoak

Pertzepzio orokorra da arreta ona edo oso ona jasotzen dela planteatutako auzien gainean. Elkarrizketari erantzun dioten pertsonen % 67,5ek oso modu positiboan balioetsi du aurrez aurreko arreta, eta % 61ek, berriz, telefono bidezkoa.

Nabarmendu behar da, halaber, % 26k uste duela eskaeren ebazpena ez dela egokia, eta, gainera, % 25ek uste du jasotako komunikazioak ez direla nahikoa.

Hobetu beharreko alderdien artean ageri dira esleipen-prozesua, gardentasuna eta esleitutako etxebizitzaren kontrola

Elkarrizketatutako pertsonen % 48k balioespen ona edo oso ona eman dio esleipen-prozesuko posta bidezko jakinarazpenari, eta % 22,5ek, berriz, txartzat jotzen du prozedura hori.

Sustapen jakinetan izena emateko prozesuari dagokionez, berriz, etxebizitza-eskatzailleek askotariko iritziak dituzte: % 35ek alderdi hori oso ontzat jotzen du, eta gainerako bi herenetatik, ostera, batek dio erdipurdikoa dela eta besteak, azkenik, txarra edo oso txarra dela.

Eusko Jaurlaritzari emandako batez besteko balioespenak maila bertsean jarraitzen du

2019an egindako inkestaren arabera, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egindako jarduna aurreko urteetako lanaren maila bertsean balioetsi dute, eta 4,7 puntu eman dizkiote batez beste 10etik. Ez da alde esanguratsurik detektatu lurralde historikoen edo eskarian azaldutako edukitza-araubidearen arabera. Eusko Jaurlaritzaren jardunari buruzko batez besteko balioespena apur bat handiagoa da gizonezkoen kasuan (4,9 puntu 10etik); emakumeek, ostera, 4,6 puntu ematen dizkiote 10etik.



5.1 koadroa. Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren balioespen orokorra.

				BALORAZIOA		
				BAXUA	ERTAINA	ALTUA
IZEN-EMATEA ETA BERRITZEA						
Izen-emate prozesua						✓
Eskatutako dokumentazioa eta administrazio-gaiak						✓
Berritze-prozesua				-		
Eskainitako informazioa				x		
ESKAINITAKO ARRETA						
Aurrez aurreko langileen arreta						✓
Telefono bidezko arreta						✓
Etxebideren web-orrian eskainitako informazioa				-		
Jasotako komunikazioak				-		
Eskaeren ebazpena Ordezkaritzan				-		
BABESTUTAKO ETXEBIZITZAREN ESLEIPENA						
Posta bidezko jakinarazpen-prozedura				-		
Sustapen zehatz batean izen-ematea				x		
Etxebizitzaren esleipen-prozesuaren gardentasuna				x		
Babestutako etxebizitzaren esleipen-prozedura				x		
Esleitutako etxebizitzaren gaineko kontrola				x		
ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN AITORPENA						
Eskaera prozesua				-		
Eskainitako informazioa (betebeharrak)				-		
Eskatutako dokumentazioa eta administrazio-gaiak						✓